



2789/2018 EBAZPENA, EKAINAREN 28KOA, OSAKIDETZAKO BILBAO-BASURTU ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUKO ZUZENDARI GERENTEARENA, EPEA IREKITZEN DUENA FAKULTATIBO ESPEZIALISTA GSUKO MEDIKU KATEGORIAN ZERBITZU-EGINKIZUNETARAKO ZERRENDAK EGITEKO/ ZERBITZU-ERAKUNDE HONENTZAT, ZERBITZU-ERAKUNDEEN ARTEKO ALDI BATERAKO BARNE-SUSTAPENERAKO.

RESOLUCIÓN 2789/2018, DE 28 DE JUNIO, DEL DIRECTOR GERENTE DE LA ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA BILBAO-BASURTO DE OSAKIDETZA-SERVICIO VASCO DE SALUD, POR LA QUE SE PROCEDE A LA APERTURA DE PLAZO PARA LA CONFECCIÓN DE LISTAS DE COMISIÓN DE SERVICIOS/ PROMOCIÓN INTERNA TEMPORAL ENTRE ORGANIZACIONES DE SERVICIOS DE LA CATEGORÍA DE FACULTATIVO ESPECIALISTA MÉDICO UGS PARA ESTA ORGANIZACIÓN DE SERVICIOS.

Beharrezkoa da Zerbitzu Erakunde honetan fakultatibo espezialista GSUko medikuaren (A1) postua betetzeko interesa dutenen zerrenda izatea. Horri begira, zerrendak egin nahi dira kategoría horretako postu funtzionala aldi batez eta zerbitzu-eginkizun bidez betetzeko/zerbitzu-erakundeen artean kategoría horretarako aldi baterako barne-sustapena egiteko.

Siendo preciso contar con una lista de candidatos/as interesados/as en la cobertura de puesto de Facultativo Especialista Médico UGS en esta Organización de Servicios, se pretende la elaboración de listas para el acceso con carácter temporal mediante comisión de servicios/ promoción interna temporal entre organizaciones de servicios a puesto funcional de la citada categoría.

KATEGORIAK/ LANPOSTU FUNTZIONALAK:

Fakultatibo espezialista GSUko medikua (A1).
Eremuna: Ospitaleko eta anbulatorioetako zerbitzu mediko, kirurgiko eta proba osagarrien agendak kudeatzea, haien mantentze-lanak egitea eta kontrolatzea.

CATEGORÍA/ PUESTO FUNCIONAL:

Facultativo Especialista Médico UGS (A1).
Ámbito: Gestión, mantenimiento y control de las agendas de los servicios médicos, quirúrgicos y de pruebas complementarias del hospital y ambulatorios.

LANTOKIA: Bilbao Basurto ESI

LOCALIZACIÓN: O.S.I. Bilbao-Basurto

BETEKIZUNAK:

REQUISITOS:

Eskabideak aurkezteko azken egunean bete beharko dira, eta agiriz egiaztatu, ez badira azaltzen baliozkotu gisa CV aplikazio informatiko korporatiboan.

Deben cumplirse el último día del plazo de presentación de solicitudes y deberán acreditarse documentalmente, salvo que consten como validados en la aplicación informática corporativa de CV.

Zerbitzu-eginkizuna eskatzen dutenentzat:

Para los/as solicitantes de comisión de servicios:

- Dagokion kategoría/lanpostu funtzionalean karrerako funtzionario, langile estatutario edo lan-kontratadun finkoa izatea, Osakidetza zerbitzu-erakundeetara atxikia; edo karrerako funtzionario edo langile estatutario finkoa izatea Osasun Sistema Nazionaleko gainontzeko zerbitzu sanitarioetan.

Ser funcionario/a de carrera, personal estatutario o laboral fijo adscrito a las Organizaciones de Servicios de Osakidetza o funcionario/a de carrera o estatutario fijo del resto de los servicios de salud del Sistema Nacional de Salud en la categoría/puesto funcional de que se trate.



- Zerbitzu aktiboan izan behar da, eta lanpostuak - betetzeko eskaera ez da egin behar norberak plaza jabetzan duen edo zerbitzu aktibora behin-behinean itzultzeagatik atxikita dagoen zerbitzu-erakundeetan.

Estar en servicio activo y efectuar la solicitud para la cobertura de puestos en Organización de Servicios distinta de aquélla en la que se tenga plaza en propiedad o a la que se esté adscrito por reingreso provisional al servicio activo.

Zerbitzu Erakundeen arteko Aldi baterako Barne Sustapena eskatzen dutenentzat:

- Karrerako funtzionarioa, langile estatutarioa edo lan-kontratudun finkoa izatea, Bilbao Basurto - ESlari/Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetx atxikia.
- Zerbitzu aktiboan izatea, eta lortu nahi den kategoria ez den beste batekoa izatea, nahi den kategoria horri dagokion titulazio-maila berekoa edo baxuagokoa.
- Eskuratu nahi den kategorian, izendapenik ez izatea karrerako funtzionario edo pertsonal estatutario finko eran, edo lan-kontratu finkorik ez edukitzea, izendapen edo kontratu horrekiko egoera administratiboa edozein dela ere.
- Pertsonal finko gisa atxikita egotea Bilbao - Basurto ESlaz besteko zerbitzu-erakunde bati.
- Eskatutako titulazioa edukitzea, uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuan ezarritakoarekin bat, eta deitutako azken EPEan eskuratu nahi den kategoria eta lanpostu funtzionalerako eskatutako gainerako titulazio-baldintzak beteta.
- Kategoria bereko lanpostu batean aldi baterako - barne-sustapenean egonez gero, egoera horretan urtebete baino gehiago egotea, etenik gabe.

Para los/as solicitantes de Promoción interna Temporal entre Organizaciones de Servicios:

Ser funcionario/a de carrera, personal estatutario o laboral fijo adscrito a la OSI Bilbao-Basurto/Organizaciones de Servicios de Osakidetza.

Estar en servicio activo y pertenecer a otra categoría de igual o inferior nivel de titulación que aquélla a la que se opta.

No tener nombramiento como funcionario/a de carrera o personal estatutario fijo o contrato laboral indefinido, de la categoría a la que se opta, cualquiera que sea la situación administrativa en la que se encuentren en relación con dicho nombramiento o contrato.

Estar adscrito/a como personal fijo a una Organización de Servicios distinta de la OSI Bilbao-Basurto

Estar en posesión de la titulación establecida en el Decreto 186/2005, de 19 de julio, y resto de requisitos de titulación exigidos en la última OPE convocada en la categoría y puesto funcional al que se opte.

Si está en situación de promoción interna temporal en puesto de la misma categoría, llevar más de un año de forma ininterrumpida en dicha situación.

ESKAERAK AURKEZTEA ETA EPEA:

Interesa dutenek eskaera behar bezala bete beharko dute, Ebazpen honekin batera doan Eranskineko ereduaren arabera eta datu pertsonal guztiak jarrita; eta Bilbao Basurto ESlko Pertsonaleko Zuzendaritzara bidali beharko dute (Montevideo etorbidea 18, 48013 Bilbo).

Eskabideak aurkezteko epea hogeit egun baliodunekoa izango da, Ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

PRESENTACIÓN DE SOLICITUDES Y PLAZO:

Las personas interesadas deberán dirigir su solicitud cumplimentada con todos sus datos personales, según modelo que se adjunta como Anexo a la presente Resolución, a la Dirección de Personal de la O.S.I. Bilbao-Basurto, (Avenida Montevideo nº 18, 48013, Bilbao).

El plazo para la presentación de solicitudes será de veinte días hábiles contados a partir del siguiente al de la publicación de la presente Resolución.



Eskabideekin batera dokumentu hauek aurkeztu beharko dira, Ebazpen honek jasotako betekizunak egiaztatzeko dokumentuez gainera (CVaren aplikazio informatiko korporatiboan behar bezala baliozkotuta dauden betekizunak eta merituak ez dira ziurtatu behar izango; hala ere, eskatzaileak horren berri eman behar du eskaeran).

- Egindako zerbitzuen jatorrizko ziurtagiria edo notario batek egindako kopia kautoa. Ziurtagiria Zerbitzu Erakundeko Zuzendaritzak edo eskumendun Organoek egin beharko dute, hauek adierazita: kategoria, lotura juridikoa, lanbide-taldea, eta hasiera-egunetik (urtea, hilabetea, eguna) amaiera-egunera arte (urtea, hilabetea, eguna) izandako aldiak, era bananduan betiere. Ez dira egiaztatu beharko Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak dagoeneko aitortu dituen aldiak.

Edozein kasutan ere, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuan egindako zerbitzuak ofizioz hartuko dira kontuan; beraz, horiek ez dira egiaztatu beharko.

- Euskararen erabilera normalizatzeko martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuan zehaztutako hizkuntza-eskakizunetakoren bat egiaztatzen duen ziurtagiria edo titulu baliokidea, lehendik ez badago Osakidetzaren esku.

BAREMOA:

Zerbitzu-eginkizunei dagokienez:

- Egindako zerbitzuak, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak deitutako azken lekualdatze-lehiaketako deialdien oinarrietan jabetzako lanpostuari dagokion kategorian izandako lanbide-esperientzia zenbatzeko ezarritakoari jarraituta.
-

Eskabideak aurkezteko epea zabaldu arte aitortutako zerbitzuak zenbatuko dira.

- Euskera: Euskera-ezagutza baloratzeko, martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuan eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Euskara

A las solicitudes deberá acompañarse la siguiente documentación, además de la acreditativa de los requisitos señalados en la presente Resolución (la acreditación no será necesaria respecto de aquellos requisitos y méritos que consten debidamente validados en la aplicación informática corporativa de CV, circunstancia que deberá hacerse constar en la solicitud):

- Certificado original o copia auténtica emitida por notario de los servicios prestados, con expresión de la categoría, vínculo jurídico, grupo profesional y desglose de los periodos desde la fecha de inicio (día, mes, año) hasta la fecha final (día, mes, año), emitida por la Dirección de la Organización de Servicios Sanitarios o por los Órganos competentes, salvo los correspondientes a aquellos periodos que ya hayan sido reconocidos en Osakidetza-Servicio vasco de salud.

En cualquier caso los servicios prestados en Osakidetza- Servicio vasco de salud se computarán de oficio, por lo que no deberá aportarse certificado de los mismos.

- Certificado de acreditación, o título equivalente, de cualquiera de los perfiles lingüísticos especificados en el Decreto 67/2003, de 18 de marzo, de normalización del uso del euskera en Osakidetza, salvo que ya obrara en poder de Osakidetza.

BAREMACIÓN:

En caso de Comisión de Servicios:

- Servicios prestados en los términos establecidos para el cómputo de la experiencia profesional en la categoría en la que se ostenta el puesto en propiedad en las bases del último concurso de traslados convocado por Osakidetza.

Se computará el tiempo de servicios reconocidos hasta la fecha de la apertura del plazo de presentación de solicitudes.

- Euskera: se valorará conforme a los criterios establecidos en el Decreto 67/2003, de 18 de marzo, y en el Plan de Euskera de Osakidetza-



Planean ezarritako irizpideak hartuko dira aintzat, Osakidetzako azken lekualdatze-lehiaketan dagokion kategoriarako xedatutako balorazioa emanda.

Servicio vasco de salud, con la valoración contemplada en la convocatoria del último concurso de traslados convocado por Osakidetza para la categoría de que se trate.

Zerbitzu erakundeen arteko Aldi baterako Barne Sustapenari dagokionez:

En caso de Promoción Interna Temporal entre organizaciones de servicios:

- Osakidetzako Enplegu Publikoaren Eskaintzako oposizio-fasea (100 puntu gehienez): kontuan hartuko da izangaiek lortutako puntuazioa Osakidetzak dagokion kategorian deitutako azken EPEko oposizio-fasean.
- Lan-esperientzia (gehienez, 80 puntu): eskabideak aurkezteko epea zabaltzen den arte aitortutako zerbitzu-denbora zenbatuko da, betiere Osakidetzak deitutako azken EPEaren barruan dagokion kategoriako deialdian barne-sustapeneko txandarako lan-esperientzia zenbatzeko ezarritako moduan.
- Euskera: Euskera-ezagutza baloratzeko, martxoaren 18ko 67/2003 Dekretuan eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren Euskara Planean ezarritako irizpideak hartuko dira aintzat, Osakidetzako azken EPEan dagokion kategoriarako xedatutako balorazioa emanda.

- Fase de oposición de la Oferta Pública de Empleo de Osakidetza (máximo 100 puntos): se tendrá en cuenta la puntuación obtenida por los/as aspirantes en la fase de oposición de la última OPE de la categoría de que se trate convocada por Osakidetza.
- Experiencia profesional (máximo 80 puntos): se computará el tiempo de servicios reconocido hasta la fecha de apertura del plazo de presentación de solicitudes, en los términos establecidos para el cómputo de la experiencia profesional para el turno de promoción interna en la convocatoria de la respectiva categoría en la última OPE convocada por Osakidetza.
- Euskera: se valorará conforme a los criterios establecidos en el Decreto 67/2003, de 18 de marzo, y en el Plan de Euskera de Osakidetza-Servicio vasco de salud, con la valoración contemplada en la convocatoria de OPE de Osakidetza para la categoría de que se trate.

Eskabideak aurkezteko epea zabaldu arte aitortutako zerbitzuak zenbatuko dira.

Se computará el tiempo de servicios reconocidos hasta la fecha de la apertura del plazo de presentación de solicitudes.

LEHENTASUN-HURRENKERA:

ORDEN DE PRIORIDAD:

Postuak betetzeko lehentasun-hurrenkera hau izango da, betiere profila egiaztatuz gero:

El orden de prioridad para la cobertura de los puestos, siempre que se acredite el perfil requerido, será el siguiente:

- 1.- Zerbitzu-eginkizunak.
- 2.- Zerbitzu Erakundeen arteko Aldi Baterako Barne Sustapena.

- 1.- Comisión de Servicios.
- 2.- Promoción Interna Temporal entre Organizaciones de Servicios.



DEIALDIA EBAZTEA:

Eskabideak aurkezteko epea amaituta, baloratuko da bai informazioa bai interesdunek dagokion denboran eta eran aurkeztutako dokumentazioa. Ostean, Balorazio Batzordeak (Pertsonaleko zuzendariak eta Pertsonal Saileko profesional bik osatua) onartu eta Bilbao Basurto ESiko zuzendari gerenteari helaraziko dizkio izangaien behin-behineko zerrendak, puntuazio-hurrenkeraren arabera antolatuta. Ebazpen bitartez argitaratuko dira Bilbao Basurto ESiko intranetean eta Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuaren web-orrian.

Ebazpen horren aurka, erreklamazioa aurkeztu ahal izango da 10 egun balioduneko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik zenbatzen hasita.

Izangaien artean berdinketa izanez gero, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuak deitutako azken lekualdaketa-lehiaketako irizpideak aplikatuko dira berdinketa hausteko.

Aurkeztutako erreklamazioak aztertuta, Balorazio Batzordeak izangaien behin betiko zerrendak onartu eta Bilbao Basurto ESiko zuzendari gerenteari helaraziko dizkio, ebazpen bidez Bilbao Basurto ESiko intranetean eta Osakidetzako web-orrian argitaratzeko.

Ebazpen horren aurka, gora jotzeko errekurtsua jarri ahal izango zaio Osakidetzako Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarri hilabeteko epean, aurreko paragrafoan ezarritako eran argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Behin betiko zerrendak argitaratu ondoren, zerrendak zabalik geratuko dira iraunkorki, eskabide berriak sartu ahal izateko, eta Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiak ezarritako irizpideen arabera eguneratuko dira.

Ebazpen honetan ez xedatutakoari dagokionez, jarraituko zaie Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren 2011ko maiatzaren 9ko Erabakiak ezarritako irizpideei, edo Erabaki hori ordeztuko dutenek ezartzen dituztenei, lanpostuak zerbitzu-eginkizun bidez betetzeko edo zerbitzu-erakundeen arteko aldi baterako barne-sustapenez betetzeko gaiei dagokienez.

RESOLUCIÓN DE LA CONVOCATORIA:

Finalizado el plazo de presentación de solicitudes y efectuada la valoración de la información y de la documentación aportada en tiempo y forma por los/as interesados/as, la Comisión de Valoración, que estará compuesta por la Directora de Personal y dos profesionales del Departamento de Personal, aprobará y elevará al Director Gerente de la O.S.I. Bilbao-Basurto los listados provisionales de aspirantes por orden de puntuación, que se publicarán mediante resolución en la intranet de la O.S.I. Bilbao-Basurto y en la página web de Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Contra dicha resolución podrá presentarse reclamación en el plazo de 10 días hábiles a contar desde el día siguiente al de su publicación.

En caso de producirse empate entre los aspirantes se aplicarán los criterios de desempate previstos en el último concurso de traslados convocado por Osakidetza-Servicio vasco de salud.

Examinadas las reclamaciones presentadas, la Comisión de Valoración aprobará y elevará al Director Gerente de la O.S.I. Bilbao-Basurto los listados definitivos para su publicación mediante resolución en la intranet de la O.S.I. Bilbao-Basurto y en la página web de Osakidetza.

Contra dicha resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Directora General de Osakidetza-Servicio vasco de salud en el plazo de un mes a contar desde el día siguiente al de su publicación en la forma establecida en el párrafo anterior.

Publicados los listados definitivos, las listas estarán abiertas permanentemente para incorporar nuevas solicitudes actualizándose conforme a los criterios establecidos en el Acuerdo de 9 de mayo de 2011 del Consejo de Administración de Osakidetza.

En todo lo no previsto en la presente Resolución deberá estarse a lo dispuesto en el Acuerdo de 9 de mayo de 2011, del Consejo de Administración de Osakidetza-Servicio vasco de salud, en lo que se refiere a los criterios de provisión de puestos mediante comisión de servicios y mediante promoción interna temporal entre organizaciones de servicios, o a lo que dispongan los que vinieran a sustituirlo.



ZERBITZU EGINKIZUNEN/ ZERBITZU ERAKUNDEEN ARTEKO ALDI BATERAKO BARNE SUSTAPENAREN IRAUPENA:

Zerbitzu Eginkizun/ zerbitzu erakundeen arteko Aldi baterako Barne Sustapen egoerak lanpostua arauz bete arte iraungo du, nahiz eta edozein momentuan ezeztatu daitekeen.

EZEZTATZEA, BAZTERTZEA ETA UKO EGITEA:

Zerbitzu-eginkizunei dagokienez:

Zerbitzu-eginkizun bidezko aldi baterako borondatezko mugikortasun horizontala edozein unetan ezeztatu ahal izango da, eta, kasu horretan, interesduna zerrendan bere puntuazioagatik dagokion tokira itzuliko da.

Langileak uko eginez gero, urtebetez (uko egiten dionetik zenbatzen hasita) ez zaio beste zerbitzu-eginkizunik esleituko uko egindako lanpostua dagoen udalerrian. Hori ez da aplikatuko kasu hauetan:

- a- Arrazoi justifikatua, Bilbao Basurto ESiko Zuzendaritzak onartutakoa, baldin badago.
- b- Aurreikusten baldin bada zerbitzu-eginkizunek sei hilabete baino gutxiago iraungo dutela.

Osasun-arrazoiengatik aldi baterako borondatezko mugikortasun horizontalari ez zaizkio arau hauek aplikatuko, duen izaera bereziagatik.

Zerbitzu erakundeen arteko Aldi baterako Barne Sustapenari dagokionez:

Aldi baterako barne –sustapena edozein unetan ezeztatu daiteke.

Kategoria zehatz batean aldi baterako barne-sustapen bidez betetzeko izenadpena ondorioz gabe geratuko da, kategoria bereko langile estatutario finko bezala destino-jabetzea egiten duen egunetik aurrera, izendapen horrekiko duten egoera administratiboa edozein delarik ere.

DURACIÓN DE LA COMISIÓN DE SERVICIOS/ PROMOCIÓN INTERNA TEMPORAL ENTRE ORGANIZACIONES DE SERVICIOS:

La duración de la comisión de servicios/ promoción interna temporal entre organizaciones de servicios, será hasta la cobertura reglamentaria del puesto y ello sin perjuicio de que pueda ser revocada en cualquier momento.

REVOCACIÓN, EXCLUSIÓN Y RENUNCIA:

En caso de Comisión de Servicios:

La movilidad horizontal voluntaria temporal mediante comisión de servicios será revocable en cualquier momento, volviendo automáticamente el/la interesado/a a la lista en el lugar que por su puntuación le corresponda.

La renuncia a instancia del/la trabajador/a supondrá la no adjudicación de una nueva comisión de servicios en el mismo municipio del puesto al que se renuncia durante un periodo de un año a contar desde la fecha de la misma, salvo en los siguientes supuestos:

- a- Que exista causa justificada y autorizada por la Dirección de la O.S.I. Bilbao-Basurto.
- b- Que la duración previsible de la comisión de servicios sea inferior a seis meses.

Se excluye de la presente regulación, por su carácter específico, la movilidad horizontal voluntaria temporal por motivos de salud.

En caso de Promoción Interna Temporal entre organizaciones de servicios:

La promoción interna temporal podrá ser revocable en cualquier momento.

Quedará sin efectos el nombramiento para cobertura de puesto mediante promoción interna temporal en la categoría convocada en el caso que se tome posesión de destino como personal estatutario fijo en dicha categoría, cualquiera que fuera la situación administrativa en que se encontrase el interesado en relación con dicho nombramiento.



Langileak uko eginez gero, urtebetez –uko egiten denetik zenbatzen hasita– ez zaio beste zerbitzu-eginkizunik esleituko uko egindako lanpostua dagoen udalerrian. Hori ez da aplikatuko kasu hauetan:

- a- Arrazoi justifikatua, Bilbao Basurto ESiko Zuzendaritzak onartutakoa, baldin badago.
- b- Aurreikusten baldin bada zerbitzu-eginkizunek sei hilabete baino gutxiago iraungo dutela.

La renuncia a instancia del/la trabajador/a supondrá no poder optar a otra promoción interna temporal en el mismo municipio del puesto al que se renuncia durante un periodo de un año a contar desde la fecha de la misma, salvo en los siguientes supuestos:

- a- Que exista causa justificada y autorizada por la Dirección de la O.S.I. Bilbao-Basurto.
- b- Que la duración previsible de la promoción interna temporal sea inferior a seis meses.

EBAZPEN HONEN AURKAKO ERREKURTSOAK:

Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiari, hilabeteko epean, argitaratu eta hurrengo egunetik kontatzen hasita.

RECURSOS CONTRA LA PRESENTE RESOLUCIÓN:

Contra la presente Resolución podrá interponerse recurso de alzada ante la Directora General de Osakidetza-Servicio Vasco de Salud en el plazo de un mes a partir del día siguiente al de su publicación.

Bilbon, 2018ko ekainaren 28an

Bilbao, 28 de junio de 2018



Osakidetza

BILBAO-BASURTO ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUA
ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA BILBAO-BASURTO

ZUZENDARI GERENTEA

DIRECTOR GERENTE

Iz./Edo: Eduardo MAIZ OLAZABALAGA

ZUZENDARI GERENTEA

DIRECTOR GERENTE



ERANSKINA

2789/2018 EBAZPENA, EKAINAREN 28KOA, OSAKIDETZAKO BILBAO-BASURTU ERAKUNDE SANITARIO INTEGRATUKO ZUZENDARI GERENTEARENA

ANEXO

RESOLUCIÓN 2789/2018, DE 28 DE JUNIO, DEL DIRECTOR GERENTE DE LA ORGANIZACIÓN SANITARIA INTEGRADA BILBAO-BASURTO DE OSAKIDETZA-SERVICIO VASCO DE SALUD

**BILBO-BASURTU ESIAK ZERBITZU EGINKIZUNETARAKO ZERRENDETAN ONARTZEKO ESKABIDEA
SOLICITUD DE ADMISION A LISTAS DE COMISIÓN DE SERVICIOS OSI BILBAO- BASURTO**

**LANPOSTU
FUNTZIONALAKATEGORIA
PUESTO FUNCIONAL/ CATEGORÍA**

**Fakultatibo espezialista GSUko medikua (A1)
Facultativo Especialista Médico UGS (A1)**

**ESKATZAILEA:
SOLICITANTE:**

ABIZENAK ETA IZENA APELLIDOS Y NOMBRE:	
LANGILE-ZKIA.: Nº DE EMPLEADO:	TELEFONOA: TELÉFONO:
Lanpostua jabetzan edo behin behineko esleipenean daukan zerbitzu erakundea: Organización de servicios donde tiene plaza en propiedad o adscripción provisional:	

AURKEZTUTAKO AGIRIAK/ DOCUMENTACIÓN APORTADA

- Langile estatutario finkoa izatearen eta zerbitzu aktiboan egotearen egiaztagiria/
Acreditación de ser estatutario fijo en servicio activo
- Zerbitzuen egiaztagiria/ Certificado de servicios prestados
- Euskararen ezagutzaren ziurtagiria/ Certificado de conocimientos de euskera

Data Fecha	Sinadura Firma	Sarrera zigilua Sello de entrada
----------------------	--------------------------	--

**BILBO-BASURTU ESIKO PERTSONALEKO ZUZENDARITZARI.
A LA DIRECCIÓN DE PERSONAL OSI BILBAO-BASURTO.**